



OSPITALERATUTA EGINDAKO INTERBENTZIO KIRURGIKORAKO JARRAIBIDEAK
INDICACIONES EN INTERVENCIÓN QUIRÚRGICA CON INGRESO

Interbentzio kirurgiko bat egin behar dizutenez, gomendio hauek arreta handiz irakurtzeko eskatzen dizugu, batez ere zure medikazioari buruzko gomendio espezifikoak, Anestesiologiako kontsultan agindu zizutenari jarraiki. Arreta berezia jarri letra lodiz adierazitakoari (beltzez dagoenari).

AGINDUOK ZORROTZ BETE EZEAN, ZURE INTERBENTZIOA BERTAN BEHERA GELDITUKO DA.

1.- Interbentzio aurretik.

Egun batzuk lehenago, Ospitaleko Harrerako Zerbitzuetik jakinaraziko dizute noiz ingresatu behar duzun eta noiz operatuko zaituzten. Agindutako egun eta orduan joan behar zara Harrera Zerbitzu Nagusia, ingresatzeko bolantearekin batera.

Erretzailea bazara, ezingo duzu erre interbentzio bezperan eta interbentzioaren osteko egunean, gutxienez.

Zure etxean dutxatu edo bainatu behar duzu, eta arropa nasai eta eroso jantzi behar duzu.

Pazientea umea bada, bere jostailu kuttunena ekar dezake.

Programatutako egunean ezinezkoa bazaizu, aldeztu aurretik guri jakinarazteko eskatzen dizugu, 943035300 telefonora deituz, goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00etara.

EBAKUNTZA-GELARA SARTZEKO HAUExEK KENDU BEHARKO DITUZU: BITXIAK, BETAURREKOAK, MAKILLAJEAK, AZAZKALETAKO ESMALTEAK ETA PROTESIAK (LENTILLAK, ORDEZKO HORTZAK, ETAB.).

Segi itzazu zehatz-mehatz ohiko medikazioaren atalean zehazten diren jarraibideak (behean).

2.- Ebakuntza baino egun batzuk lehenago ospitaleratu behar baduzu: arratsaldeko 17:00 eta 18:30 bitartean.

Con motivo de su próxima intervención quirúrgica le rogamos preste atención a las siguientes recomendaciones. Preste especial atención a las recomendaciones específicas en torno a su medicación tal y como se le indicó en la consulta de Anestesiología, así como a los aspectos resultados en negra

EL NO CUMPLIMIENTO RIGUROSO DE LAS INDICACIONES CONLLEVA LA CANCELACION DE SU INTERVENCIÓN.

1.- Antes de la intervención.

El servicio de Admisión del Hospital le avisará con algunos días de antelación de la fecha de ingreso y de la fecha de intervención. Acudirá en la fecha y hora citada al Servicio de Admisión Central. Deberá traer el volante de ingreso.

Si es usted fumador, deberá dejar el tabaco al menos el día anterior y posterior a la intervención.

Deberá ducharse o bañarse en su domicilio y vestirse con ropa holgada y cómoda.

Si el paciente es un niño puede traer su juguete preferido

Si no pudiera operarse en la fecha programada, le rogamos nos lo comunique con tiempo llamando al teléfono 943035300 en horario de 8 de la mañana a 3 de la tarde.

DEBERA ACCEDER A QUIROFANO SIN JOYAS, GAFAS, RELOJ, MAQUILLAJE NI ESMALTE DE UÑAS. ASI MISMO DEBE QUITARSE CUALQUIER TIPO DE PROTESIS (LENTILLAS, DENTADURA POSTIZA, ETC.)

Siga rigurosamente las instrucciones detalladas en el apartado de medicación habitual.

2.- Si debe ingresar uno o varios días antes de la intervención: en horario de tarde, de 17:00 a 18:30 horas.

